

2018Ko Plan Eta Funtsetako Ekarpenen Zozketaren Legezko Oinarriak

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A.k, helbidea Bilboko San Nikolas plazaren 4. zenbakian eta IFK zenbakia A48265169 duen merkataritza-sozietateak (aurrerantzean, “**BBVA**”), «2018KO PLAN ETA FUNTSETAKO EKARPENEN ZOZKETA» izeneko promozioa antolatzen du (aurrerantzean, “**promozioa**”), eta legezko oinarri hauek eraenduko dute (aurrerantzean, “**legezko oinarriak**”).

LEHENA.- XEDEA

Promozio honen xedea da BBVAko bezeroak sustatzea gutxienez (100) euroko zenbatekoko aparteko ekarpena egin dezaten www.bbva.es eta m.bbva.es atarrien bidez, BBVA aplikazioaren bidez edo BBVAren edozein ATM kutxazainaren bitartez, jarraian adierazitako baldintzetan, hurrengo edozein produktuetara:

- (i) pentsio-plan indibiduala, BBVA Pensiones, S.A E.G.F:P delarik horren kudeatzailea (aurrerantzean “pentsio plana”),
- (ii) BBVA erakunde administratzailea den NORPENSIÓN EPSV INDIVIDUALEko gizarte aurreikuspeneko plana (aurrerantzean “aurreikuspen plana”) - edo
- (iii) BBVA Asset Management, S.A. S.G.I.I.C-ek kudeatutako inbertsio-funts batera (aurrerantzean “inbertsio-funtsa”)

Arestian aipatutako ekarpena egiten duten partaideek parte hartu ahal izango dute legezko oinarrietako seigarren klausulan adierazitako datetan ospatuko diren sei (6) zozketetako bakoitzean (pentsio plan eta gizarte aurreikuspen planetako aparteko ekarpenengatik 3 zozketa eta BBVA inbertsio-funtsetako aparteko ekarpenengatik 3 zozketa); horietan, mila (1.000) euroko saria zozketatuko da, zozketa bidez eta legezko oinarri hauetan adierazitako baldintzetan.

BIGARRENA.- INDARRALDIA

Promozioan parte hartzeko epea 2018/10/1ean hasiko da, 15:00etan (Espainiako penintsula ordua), eta 2018/12/31n bukatuko da, 23:59an (Espainiako penintsula ordua), bi egun horiek barne (aurrerantzean, “**indarraldia**”).

HIRUGARRENA.- LURRALDE-EREMUA

Promozio hori baliozkoa izango da Espainiako lurralde osoan.

LAUGARRENA.- PARTE-HARTZEAREN BALDINTZAK

- Edozein pertsona fisiko izan daiteke promozioaren xede, promozioaren hasiera datan 18 urte baino gehiago baditu, 2017ko abenduaren 31 baino lehen (egun hori barne) 64 urte baino gehiago bete ez baditu, eta Espainiako lurraldeko egoiliarra bada.
- Promozioan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da BBVA bezero izatea, kanal anitzeko kontratua sinatuta izatea, eta pentsio plan bat, gizarte aurreikuspeneko plan bat edo inbertsio-funts bat aurrez kontratatuta izatea.
- Legezko oinarri hauek berariaz onartzea ezinbestekoa da promozioan parte hartu ahal izateko, eta, ondorioz, baita zozketetako batean aukeratua izan eta saria lortu ahal izateko ere.
- Parte-hartzaileek legezko oinarri hauek betetzen ez badituzte, promoziotik kanpo geratuko dira automatikoki, eta, irabazle suertatu badira, saria itzuli beharko dute.

BOSGARRENA.- PARTE-HARTZEAREN MEKANIKA

Zozketetan parte hartzeko eta zazpigarren klausulan deskribatutako saria lortu ahal izateko, partaideak legezko oinarri hauek onartu beharko ditu eta aparteko ekarpena egin beharko du, gutxienez ehun (100) eurokoa pentsio-plan batera, gizarte aurreikuspeneko plan batera edo inbertsio-funts batera, "aparteko ekarpena egin nire planera" atalaren bitartez edo "aparteko ekarpena egin nire funtsera" hurrengo webgunearen eremu pribatua www.bbva.es edo m.bbva.es, edo BBVA aplikazioa edo BBVAren edozein ATM kutxazainetan (aurrerantzean, "**Aparteko ekarpenak**"), betiere erabilgarri dagonean promoziora atxikitzeko prozesua aipatutako kanalen bidez. Indarraldian egin beharko dira aparteko ekarpenak.

SEIGARRENA.- ZOZKETA

Promozioaren indarraldia amaitu eta gero, hiru (6) zozketa egingo dira guztira (aurrerantzean, «zozketak»): (i) Pentsio planetara eta gizarte aurreikuspeneko planetara aparteko ekarpenak egin dituzten partaideen 3 zozketa eta (ii) inbertsio-funtsetara aparteko ekarpenak egin dituzten partaideen 3 zozketa (aurrerantzean, "**Zozketak**").

Zozketa bakoitzean irabazle bat (1) eta bi (2) ordezeko aukeratuko dira (aurrerantzean, "**Ordezkoa/k**"), irabazleak edo aukeratutako ordenean hurrengo ordezekoak saria ez duelako jasotzen, ez dituelako betekizunak betetzen edo ez dituelako legezko oinarri hauek finkatutako parte hartzeko baldintzak betetzen, edo ezin bada pertsona lokalizatu. Guztira sei (6) irabazle aukeratuko dira promozioan, bat zozketa bakoitzeko (aurrerantzean, "**irabazlea/k**").

Irabazleak ez balu legezko oinarrietan finkatutako edozein betebeharrak betetzen, automatikoki deskalifikatu egingo da eta emanda balego, saria itzultzeraz behartuta egongo litzateke. BBVAk sariaren irabazleari jakinaraziko dio deskalifikatua izan dela legezko oinarriak ez betetzeagatik, eta arrazoizko epean, zeina jakinarazpen horretan adieraziko den, emandako sariaren zenbatekoko kargua egingo du diru-sarrera egin zen irabazlearen kontuan. Kasu horretan, legezko oinarrietako parte-hartzeko baldintzak eta zehaztapenak betetzen dituen hurrengo ordezekoari esleituko zaio saria.

Sei zozketak 2019/01/10ean egingo dira Madrilgo notario baten aurrean, BBVAk Madrilen dituen egoitzetako batean edo xede horretarako esleitutako notarioaren bulego profesionalan.

Partaide bakoitzak zozketa guztietan hartzeko eskubidea izango du, baina soilik horietako bat irabazi ahal izango du.

Zozketetako batean partaidetik egongo ez balitz, BBVAk huts deklaratu litzuke zozketa partikularra eta zozketa horri dagokion saria.

Notarioak zozketak egingo ditu notariotzaren plataforma telematikoa xede horretarako eskuragarri dauden aplikazioak erabiliz edo ausazkotasuna bermatuko duen beste edozein prozedura erabiliz. Zozketa bakoitzerako fitxategi bat prestatu eta emango zaio notarioari, euskari fisiko edo digitalean, baldintzak betetzen dituzten edota legezko oinarrien baldintzak betetzen dituzten partaideen guztizko zenbatekoarekin. Txartel bat esleituko zaio partaide bakoitzari, zeinak zenbaki sekuentzial bat izango duen. Modu horretan, txartelen guztizkoarekin fitxategi bat prestatuko da, eta txartel horietako bakoitza partaide batena izango da. Fitxategi hori zozketa bakoitzean erabiltzen da.

Sei (6) zozketetako bakoitzean partaideen guztizko kopurua islatzen duen inprimatutako kopia edo euskarri digitaleko kopia izango da, zeina notarioaren eskuetan egongo den, zozketa bakoitzari dagokion aktarekin batzeko. Modu horretan saritutako txartelen zenbakiak osatu eta ezagutzean, notarioak egiaztatu ahal izango ditu partaide sarituen datuak, aplikazio informatikoa erabiliz.

BBVAren borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta zozketarik ezingo balitz egin aurreikusitako datan, bertan behera geratuko da eta hurrengo egun baldiodunera pasako litzateke, behin zozketa egitea oztopatzen duen arazoa konponuta dagoenean. Hasiera batean aurreikusita zegoen datan ospatu beharreko zozketan sartuko liratekeen partaideen zerrenda erabiliko da.

ZAZPIGARRENA.- SARIA

Saria irabazleari ematen zaizkion mila (1.000) euro gordinetan oinarritzen da zozketa bakoitzean (aurrerantzean "**Saria**").

Sei (6) sari zozketatuko dira guztira (aurrerantzean "**Sariak**"), bat, seigarren klausulan ezarritakoaren arabera ospatutako sei (6) zozketetako bakoitzeko.

Sariak ez du aldaketarik jasango ezta irabazleek eskatutako ordainik lortuko ere. Irabazle batek baino gehiagok saria errefusatzeko badute, ez zaio alternatibarik eskainiko.

ZORTZIGARRENA.- IRUZURRA

BBVAk edo profesionalki promoziora lotuta dagoen edozein erakundek arazoren bat detektatzen badu edo susmatzen badu partaide batek galarazi egiten duela promozioaren garapen ohikoa, partaide horren parte-hartzea bertan behera utziko da aldebakarrekotasunez. Xede horietarako, BBVAk beharrezko euskarri teknologikoak prestatu ditu, legez kontra saria lortu nahi duen eta parte-hartzea hondatu nahi duen iruzurrezkoa, anormala edo mingarria den jokaera posible bat detektatzeko. Hortaz, BBVAk beretzat gordetzen du edozein partaide erregistrotik ezabatzeko eskubidea, erakutsi badu edo susmatzen bada deskribatutakoaren arabera araz kanpoko jokaera bat duela.

BEDERATZIGARRENA.- SARIAREN JAKINARAZPENA ETA EMATEAREN BALDINTZAK. PROZEDURA SARIRAKO ESKUBIDEA GALTZEN BADA

Irabazleei gehienez zozketa egin osteko hamabost (15) egun naturaleko epean jakinaraziko zaie irabazi dutela, irabazleek haien kontratuaren testuinguruan BBVAri emandako telefono-zenbakia erabiliz deituta; telefono-zenbakirik adierazi ez badute, e-mail bat bidaliko zaie adierazi duten posta elektronikora eta aurreko harremanetarako datu horiek izango ez balira, bulegoko kudeatzailearen bitartez egingo litzateke komunikazioa. Hiru (3) saiakeren ostean ez balitz lortuko irabazlearekin telefonoz harremanetan jartzea, edo BBVAri telefono-zenbakirik komunikatu ez bazaio, edo irabazleak 7 eguneko epean irabazle dela jakinarazteko bidalitako mezu elektronikoa jaso duela adierazten duen berrespena ez badu bidali, saria ordezkoari esleituko zaio, betiere legezko oinarrietan agintzen diren baldintzak betetzen dituenean, seigarren klausulan ezarritako prozedura jarraituz eta aukeraketa ordenean.

Irabazleak BBVAtik "sariaren onarpen eta hartze-agiria" (aurretantzean "**Onarpen eta hartze-agiria**" jasoko du, irabazle dela jakinarazi zaion dei edo mezu elektronikoan adierazitako posta elektronikoan (BBVAri telefono-zenbaki bat ez badio adierazi). Irabazleak zazpi (7) eguneko epea izango du, aipatutako BBVAren mezuaren igortzetik kontatzen hasita, onarpen eta hartze-agiria behar bezala sinatuta eta eskaneatuta kopia bat igortzeko, eta kasuan kasu, BBVAren Banakako Pentsio-planaren edo Gizarte Prebentziarako planaren indarraldia egiaztatzeko eskatutako datu edota dokumentazioarekin, hurrengo posta elektronikora sorteosbbva.es. Behin dokumentazioa jaso ondoren, BBVAk sariaren ordainketa egingo du bezeroaren kontuan 2019ko martxoa baino lehen.

Irabazleak BBVAren hasierako komunikazioa ez balu erantzungo edo ez balu igorriko onarpen eta hartze-agiriaren kopia adierazitako epeetan, legezko oinarriak ez balitu beteko edo ezingo balitz lokalizatu; legezko oinarrietan agindutako baldintzak betetzen dituen ordezkoari esleituko zaio saria, seigarren klausulan ezarritako prozedurarekin bat aukeraketa ordena jarraituz.

HAMARGARRENA.- LEGEZKO OINARRIEN ONARPENA

Legezko oinarri hauen onarpenak horiekiko erabateko adostasuna suposatzen du, horien interpretazioan egon daitekeen edozein gatazken ebazpenean BBVAk duen irizpidea onartzeaz gain.

HAMAIKAGARRENA.- ERREKLAMAZIOA

Promozioaren erreklamazio epealdia indarraldiaren amaiera-datan hasi eta laurogeita hamar (90) egun natural igaro ondoren amaitzen da.

HAMAIKAGARRENA.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA

Parte-hartzaileari jakinarazten zaio zozketa honetan erregistratzean eta parte hartzean emandako datu pertsonalak, barne hartuz ordezkio edo irabazle gisa emandakoak, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.-ren titulartasuneko fitxategi batean tratatu eta gehituko direla; honakoa da bere helbidea: San Nikolas plaza 4, 48005, Bilbo; lehiaketa honetako fase guztiak kudeatzeko, eta baita dagozkien sariak emateko eta gainontzeko komunikazio, informazio eta lehiaketara lotutako promozio lanetarako, Legezko oinarrietan aurreikusitako baldintzetan.

Informazio hau BBVAk tratatu eta zainduko du agindu dakizkioken legezko segurtasun neurrien bitartez, horren segurtasuna bermatuko duten izaera tekniko eta antolaketako neurrien bidez, horren aldaketa, galera, edo baimendu gabeko tratamendu edo sarrera saihestuz, teknologiaren egoeraren, datuen izaeraren eta horiek izan ditzaketen arriskuen arabera. Zure datuak kontserbatu egingo ditugu lehiaketan parte-hartzearen kudeaketarako beharrezko epealdian.

BBVAk ez dizkiegu hirugarrenei zure datuak komunikatuko, lege batek behartu edo horretarako onarpena jaso ezean.

Parte-hartzaileek doan erabili ahal izango dituzte haien sarrera, zuzentze, ezeztatze, aurka egiteko, tratamenduaren mugatzerako eta eramangarritasunerako eskubideak, helburu horrekin BBVAri idatziz servicioatencioncliente@grupobbva.com helbide elektronikora. Ez du atzeraeraginezko izaerarik izango eskubide horien erabilerak. Lehiaketaren kudeaketarako beharrezko datuen ezeztatzeak (barne hartuz sariaren ematea) lehiaketaren baja automatikoa eragingo du.

Iruditzen bazaizu BBVAk zure datu pertsonalak ez dituela araudiaren arabera tratatu, datuen babeserako ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke, helbide honetan: dpogrupobbva@bbva.com. Dena den, erreklamazio bat aurkeztu diezaiokezu Espainiako Datuak Babesteko Agentziari (www.agpd.es).

HAMAHIRUGARRENA. - ZERGA-SISTEMA.

Promozio honetako mila (1.000) euroko sari bakoitzari azaroaren 28ko 35/2006 Legea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa eta Sozietateen, Ez-egoiliarren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen aldaketa partzialari buruzkoa aplikatuko zaie; abenduaren 27ko 26/2014 Legea, aurrekoa aldatzen duena; 439/2007 zenbakidun Errege-dekretua, zeinaren bitartez erregelamendua eta bere ondorengo aldaketak onartzen diren; martxoaren 5eko 5/2004 lege-gintzako errege-dekretua, zeinaren bitartez Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategina onartzen den (abenduaren 27ko 26/2014 Legearen bitartez aldatua); uztailaren 30eko 1776/2004 Errege-dekretua, zeinaren bitartez onartzen den Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zergaren araudia; azaroaren 27ko 27/2014 Legea, sozietateen gaineko zergarena; uztailaren 10eko 634/2015 Errege-dekretua, zeinaren bitartez onartzen den sozietateen gaineko zergaren araudia; Jokoaren erregelamendurako eta bat datozen eta haien garapenean agindutako beste xedapenetarako 13/2011 Legea, BBVAren ardura izango da konturako diru-sarrera edo dagokion atxikipena egitea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (aurrerantzean, PFEZ), Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga edo sozietateen gaineko zergarena.

Aipatutako araudiarekin adostasunean, partaideei jakinarazten zaie, salmentara edo ondasun edo zerbitzuetara lotutako joko, lehiaketa, zozketa edota ausazko konbinazioetan parte hartzeagatik lortutako saria ondare-irabazitzat hartzen dela. Sariaren balorea hirurehun euro (300 €) baino handiagoa denez atxikipenari lotuta dago. Xede horiek lortzeko, indarrean dagoen legeriak finkatzen duen atxikipen-tasa aplikatuko da, unean egoiliar zein ez-egoiliarrentzat; Europar Batasunean edo Europako Esparru Ekonomikoan establezimendu iraunkorrik ez duten egoiliarrentzat (Norvegia eta Islandia) % 19 izango delarik eta gainontzeko ez-egoiliarrentzat % 24, azken bi horietan Espainiak harpidetutako zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena aplikagarria delarik; kasu horietan, hitzarmenean xedatutakoa aplikatuko da. BBVAk irabazlearen kontutik sartuko du atxikipena altxorrean.

Saria lortzeko irabazlearen zerga-sisteman izan ditzakeen eragin fiskalak, bere kontura kudeatu beharko ditu, eta horregatik BBVA edozein arduraz libratzen da. Horretarako, BBVAk irabazlearen esku jarriko du sariari buruzko datuak jasotzen dituen ziurtagiri bat.

Partaide irabazleak sariaren ematea baino lehen berretsi beharko ditu bere datu pertsonalak eta horretaz gain, bere identifikazio pertsonalerako dokumentuaren kopia eman beharko du (NANA, egoiliarren txartela, pasaporte, etab.). Bederatzigarren klausulan adierazitako atxikipena gauzatu ahal izan dadin, irabazleak onartze- eta hartze-agiria sinatu beharko du. Bestela, saria hartzeko eskubidea galduko luke.

Sariak emateko beharrezkoak diren irabazlearen datu pertsonal eta fiskalen betetzeak derrigorrezko izaera du; beraz, datu horietako edozein ez izateak lortutako saria izateko eskubidea galtzea eragingo du.

HAMALAU GARRENA. - ERANTZUKIZUNA

BBVA ez da arduratzen gerta daitezkeen galera, hondatze, lapurreta, atzeratze edo bestelako hirugarrenei edo interneti egotz dakizkieken bestelako egoerez, zeinak promozioan parte hartzean eragina izan dezaketen.

BBVAk beretzat gordetzen du edozein parte-hartze edo partaide bertan behera uzteko eskubidea, datuen edo promozioaren erabilera desegokiaren susmoak baditu.

Halaber, BBVA baztertu egiten du edozein izaera duen kalte-galerako edozein erantzukizun; izan ere, nahiz eta segurtasun neurriak hartu, partaideek zerbitzu eta edukien erabilera okerra egin dezakete, eta horien artean bereziki, nahiz eta ez modu eksklusiboan, baztertu egiten dira erabiltzaile batek edozein komunikazio klasetan hirugarren baten pertsonalitate ordezipenari lotutako edozein kalte-galerak.

HAMABOS GARRENA. - LEGEZKO OINARRIEN KONTSULTA

Legezko oinarri hauek Luis Carlos Troncoso Carrera edo Gonzalo Sauca Polanco notarioen aurrean gordailutu dira, eta bbva.es webgunean eskuratu daitezke.

BBVAk ahalmena du legezko oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoera ebazteko.

Partaideak onartu egiten du BBVAk geroratu, laburtu, atzeratu, aldatu, ezeztatu edo eten egin dezakeela promozioa, bere kontroleratik at dauden ezinbesteko arrazoiak direla eta, eta konprometitu egiten da partaideei egoera hori jakinaraztera lehenbailehen.

Legezko oinarri hauen edozein klausula baliogabetzat jotzen bada, horren eraginik ez duten gainontzeko klausulak indarrean jarraituko dute.



HAMASEIGARRENA.- PARTE HARTZEKO ARGIBIDEAK

Partaideek BBVAk igor ditzakeen argibideei kasu egin beharko diete.

HAMAZAZPIGARRENA.- PARTE HARTZEKO MUGAK

Promozio horretan parte hartzetik kanpo geratzen dira, horren antolaketan parte hartu duten pertsonak, eta aktiboan ari diren langileak eta aurretik erretiratu direnak, bai BBVAkoak zein bere enpresa taldekoak.

Zozketan ere ezingo dute parte hartu, nahiz eta legezko oinarri hauetan adierazitako baldintzak bete, indarraldiak irauten duenetik saria ematen den arte, irabaziak suertatuz gero, BBVAren aurrean edozein epez kanpoko edo galdagarri kopuru bat zor duten partaideak. Aipatutako egoeran, partaideak erregularizatu egin beharko du egoera saria jaso aurretik. Saria emateko data iristen bada eta partaideak ez badu erregularizatu zorra, saridun egoera galduko du.

HAMAZORTZIGARRENA.- LEGERIA ETA FORUA

Edozein eztabaidetan Espainiako legeria aplikatuko da Madrilgo epaitegi eta auzitegietan.